

## egunekoa

Fito Rodriguez

(EHUko irakaslea)

# Batman eta Gordin

**B**ikoteka azaldu izan ohi dira ideologia atzerakoiak horrenbeste maite omen dituen heroiak: Roberto Alcazar eta Pedrin, Trueno kapitaina eta Goliath edo...idazki honen izenbururako erabili ditudan Batman eta Robin. Haietari-ko bat dugu, jakina, eredia eta nagusia, besteari, aldiz, miretsiriko lider heldua-ren arrastoari jarraitzea egokitzen zaio soilik. Madrilgo eta Gasteizko politiken ildoak zer-nolako harremanetan dau-den ulertarazteko konparazioak balio dezakeelakoan nago.

Batman, saguzar iluna, botere baka-rraren irudia dugu, bera itzalik egingo dion edozer txikituko duen Bat-gizakia eta Bat-gizartea, alegia. Aniztasunaren aurkako zaldun hegalarri gihartsua.

Gordin, haren miresle txikia bezain leiala, ikaslea eta jarraitzailea litzateke, era berean.

Baldin eta Batmanek badio: «...*la futura consulta de un referendum de autodeterminacion ...la defensa de un derecho... se convierte en actividad delictiva...*» (Baltasar Garzon. Sumario 35/2002-M.2.or. 02/10/16. Madrilen), Eusko Jaurilaritzak, ildo horri atxikirik, debekatzen du gordini aipatu eskubidearen aldarrikapena: «Demokrazia Euskal Herriarentzat, Autodeterminazioa orain, leloa Batasunak jarduera etenda izan aurretik erabiltzen zuen lelo berbera dela», eta Batmanen argudioa ontzat harturik, nahikoa da horren aldeko manifestazioa debekatzeko.

Bistan da zein den nagusia eta zein morroia. Nork agintzen duen eta nork obeditu, baina bikoteka doazela ez da go zalantzarik.

Duela gutxi Donostiako kaleetan «*Derrigorrezko nazionalismoaren aurka*» pankartaren atzetik ibili zen manifestazioak ez zuen inolako arazo legalik izan behar bezala burutu ahal izateko, zein da, beraz, oraingoari baimena kentzeko

arazoa? ...eta arazoa diot arrazoirik ez dagoelako Batmanen indarraz aparte. Euskaldunok eskubide gutxiago ditugu gure herrian manifestatzeko Bat-giza-kiaren jarraitzaileak baino?, horren na-barmen irudikatu nahi al da menpeko-tasuna nahiz umilazio politikoa?, pentsamen-du politikoaren arabera-ko bigarren mailako hiri-tarrak gara? Eta «*Derrigorrezko nazionalismoa-ren aurka: Autodetermi-nazioa*» eskatuz gero, debekatua izango litzateke leloagatik ala kon-bokatzaileengatik?

Argi esanda, autodeterminazioaren eskubideak herrien arteko berdintasuna eta simetria bermatzeko balio du. Hura onartu gabe herrien arteko asimetria egoera da egonkortzen dena. Autodeterminaziorik gabe beti izango ditugu herri indartsuen arrastora ibiliko diren morroiak. Hau guztia, Eusko Jaur-laritzaren parte diren Ezker Batuak, Eusko Alkartasunak eta *Independente batzuk* badakite jakin nahiz eta Balzak eta bera babesten duen Alderdi Jeltza-leak Garzonen monagilorena egin.

«*Somos un pueblo, una etnia, una lengua, una gente aparte con personalidad propia y con derecho a construir nuestro propio poder politico, a constituir un Estado vasco. Los vascos no permitiremos que se nos niegue este derecho ni por las armas ni por ninguna otra cosa*», zioen Alderdi Jeltzaleko burua den Xabier Ar-zalluzek (*El Pais* 94/07/17). Orain, ber-riz, herriari deitza mezu horren ingu-ruan biltzeko delitutzat jotzen du Eus-ko Jaurilaritzak Madrilgo juje batek hala diolako?

Espainia eta Frantziako konstituzio-ak (78koa eta 58koa, hurrenez hurren) onartuak izan ziren Euskal Herriari gal-detu gabe. Hau da, Euskal Herriak

onartu behar zuen lehenago ea Espai-niako ala Frantziako konstituzio politi-koen parte izan nahi zuen ala ez. Ekin-tza gauzatuen politaren menpe era-man dute Euskal Herrira menpekota-sun osora. Bada garaia, ordea, helduta-sun politikora

### DEBEKUAREN INGURUAN

**Autodeterminazioaren alde ibiltzen segitzeko borondatea kalean eta edonon agertuko da**

etan autodeterminazioa bera onartuta ez dagoen bitartean zeren ezin da esan autodeterminaziorik ezean ezer auto-determinatzen denik erabateko kon-traesan nabarmenean errorri gabe.

Hauze dugu, beraz, Herri honen ego-era politikoaren gakoa. Euskal Herria-ren izaera ukatua dagoenez, Euskal He-rriari behar adinako heldutasun politi-koa aitortzen ez zaionez, kanpoko na-gusiaren ekin-tza gauzatuen politikak agintzen du eta, oraingo honetan beza-la, inolako arrazoirik gabeko debekua ezartzeko ahalmena badagoela uste dute (Jaunak eta jauntxoek). Gure He-rria betiko infantilizazioan iraunarazte-ko nahia badago. Hots, etimologikoki, hitz egiteko aukerarik eman gabe (lati-nez *fari* mintzatzea baita eta *in ezezko*-aren aurritzia). Ez gara haurrak, ordea. Ez dugu Robin edo Pedrin izan nahi eta ez dugu beren jipoi grinen arabera jo-lastuko. Aspaldi Batman edota Trueno kapitainen liluraz aske ibili bagabiltza, eta nola edo hala, Herri honen autode-terminazioaren alde ibiltzen segitzeko borondatea kalean eta edonon agertu-ko da. Beste hark zioen moduan: «eus-kaldunok ez dugu onartuko eskubide honen ukapenik, ez armaz ez eta beste zanpaketa mota erabilita ere».

## zutabea

Oihane Enbeita



### Elegantziaz

**H**ainbeste denbora Imaz aipatu ere egin barik, eta hara non ager-tzen zaidan telebistan kasko bat jarrita, zubi ez oso egonkor batean zehar, kirol arriskutsuak praktikatzen. Sokaz josita, abiadura aurpegia jarri eta oreka mantentzeko ahaleginetan. Sobronen abentura bila. Uau! Zeinek esan behar zidan arriskuak hartzea gustukoa izan ze-zakeenik. Trajea eta korbata jantzita. Arriskua elegantziarekin hartzea deitzen zaio horri. Arrisku eta abentura nahikorik bada, bestela ere, nahi duenarentzat gure Herrian. Mahai baten aurrean eseri (kas-korik gabe) eta T-O-R-T-U-R-A ahoska-tzea zailagoa zaio. Gauza bakoitzari bere izenetik deitza kirol arriskutsua da, izan ere.

Torturaren aurkako mundu erakundeko (OMCT) Eric Sottasek Espainiako eta Euskal Herriko zati bat tortura onartzen hasi zela esan zuen ez oso aspaldi. Eta Ertzaintza ez dagoela jokabide horretatik at. Ertzaintza. H-rik gabe. Mutua izateare-kin nahikoa ez eta H-a desagerrarazi egin zuten. Mutuago mantentzeko. Baina zen-tzugabea da herria H-rik gabe mantentzen saiatzea eta H-a ez damutua idatzita dago-enean. Gerran desagerrarazitakoen ize-nak idazten direnean mutuak ez diren be-zala. Komisarietan jasandakoaren lekuko-tasunak mutuak ez diren bezala. Herri honen H-a ez da mutua. Ez damutua. Eta Ertzaintza ez da herritarrona, herrita-rrok desagerrarazi nahi ez dugun H-a daramagulako. Eta ahoskatzen saiatu ginenean isilarazi egin nahi izan gintuela-ko. Baltzak badaki Bilbon zer gertatu zen. Baltzak badaki komisarietan zein kalean zer dagoen. Lakuak badaki non dagoen. Lakuak erabaki egin beharko du lokatzetan zenbateraino sartu. Mutu eta damutu. Bata bestearen atzetik etor daitezke. Salaketak ere bata bestearen atzetik datoz, eta lokatzak marka uzten du galtzetan noraino heldu den frogatzeko. Ez al da hobe trajea eta korbata jantzi, mi-krofonora aurreratu eta dagoenari elegan-tziaz erantzutea. Utzi kaskoak eta sokak langileria eta heldu zuri dagokizunari. Elegantziaz.

## seiko urrea

Jon Alonso



### Argazkiak eta alfonbra azpiak

**S**adam Husseinek Kuwaiteko pe-trolio-putzuak erre zituenean, mundu osoari bira eman zion irudi bat egon zen, petrolioz zipa-zipa eginda-ko ubarroi edo potorro horrena, hain zu-zen, di-da batean diktadore irakiarraren berezko gaiztakeriaren ikur bihurtua. As-koz geroago, bonbardaketen zeharkako kalteek hildakoen gorpuak alfonbra azpi-ra eskobatutako estatistika-zenbaki hotz

baizik ez zirenean, jakin genuen *Exxon Valdez* petroliontzia-aren isurketaren on-dorioa izan zela, benetan, ubarroiaren ar-gazki hura.

*Prestige* hondoratzeak ez digu, mo-mentuz, potorro hura bezalakorik eskai-ni, orain ez delako komeni, nonbait, jen-dearen ekologiaren aldeko sentiberata-sun bizia eta apur bat naif hori astintzea; aitzitik, ontzia hondoratzean fuela soli-

dotuko dela sinestarazi nahi zaigu, ale-gia, zikinkeria alfonbra azpira eskobatzea dela onena, 3.500 metro sakon den ur-al-fonbraren azpian arrainik ez bailegoen.

Greenpeacek eta bestek salatu dute oraintxe bete direla hamar urte, justu, *Mar Egeo* petroliontzia-ak Galizako kosta arriskutsu horretan istripua eduki zuene-tik, eta hamar urteotan Xuntak eta agin-tariek larrialdi-neurririk ezartzeko egin dutena hutsaren hurrengo dela. Ez dut uste, baina, salaketak gauza handirik la-rrituko zuenik beste GAL baten sorrera (ordukoaren erantzukizunak alfonbra az-pian, noski) iragartzen eta Gasteizko hil-ketak alfonbra azpira eskobatzan lan handiagoa duen Fraga erre ezina, Palo-mareseko gertaeraren garaietatik, argaz-

kien bidez, erregai-arazo latzak konpon-tzen ohituta baitago.

Izan ere, horixe zitekeen ezbehar triste honen mailako argazkia: Fraga, Neptuno bailitzan, marea beltzaren erdian murgil-tzen, bainua hartzeko prest. Damurik, oraingoan, ez dirudi oraingoan bainujan-tzia armairutik ateratzeko prest dagoe-nik (alfonbra azpian gordetzen ez badu, behintzat. Modelo berbera erabiliko al du?). Adina, agian? Marisko-jate publiko eta eder batez alaituko bagintu, behin-tzat...

Alfonbra azpian zer gorde, eta argaz-kia nola atera, horra gakoak. Alfonbra azpikoek azalera egingo duten eguneko erauntsiaren argazkian, baietz gu uba-rroi.